

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2012ko urtarrilaren 25a. IX. urtea. 2.348. zenbakia. tolosaldeko.hitza.info

Orendaindarrek prest dute jada erabilera anitza izango duen eraikina

Barrutik hornitzeko diru laguntza eskaeraren erantzunaren zain dago udala; momentuz adinekoek izango duten tokia eta spinning gela egokitu dituzte, eta gainerakoa adostu egin beharko dutela dio alkateak 05



Erabilera anitzeko eraikinaren ondoan egiten ari diren etxebizitzak urte amaierarako bukatu nahi dituzte. E.MAZ

Asuncion klinikari emandako obra baimena irregularra dela salatu du TOPAK

Osasun publikoaren aldeko koordinakundeak salatu duenez, Tolosako aurreko udalak eman zuen baimena; era berean, osasun etxeak ez duela 231.000 euroko zerga ordaindu esan du 03

Maria Rodriguez Musikaterapeuta

«Partekatzen dugun eta, aldi berean, bakarra den soinu identitate bat dugu»

Tolosako Hirukide ikastetxeak antolatuta, musikaterapia saioak ematen ari da haur txikien gurasoei eta haurdun daudenei 02

Leitzako lhoteen ondotik, Aresoko Inauterien txanda da orain

Leitzako Inauteriak atsauren kalejirarekin bukatu dira eta antolatzaileek «jendetsuak» izan direla diote; etzi hasiko dira Aresoko jaiak 07



Jende ugari gerturatu zen atzo arratsaldean, atsauren kalejira ikustera. I.TERRADILLOS



Helduentzako Jertsea:
lehen **29,5 €**
orain, **eskaintza berezia**

25 €

hitzaren jertsea

Kolorea: beltza
Gizon eta emakumeen modeloak
Neurriak:
• **Gizonak:** S-M-L-XL-XXL
• **Emakumeak:** S-M-L-XL

Noiz eta nola egin eskaria?

• TELEFONOZ: 902-82 02 01
• POSTAZ: harpidetza@hitza.info

* Jertsea probatu nahi baduzu, zatoz HITZAren bulegora

hitza info

Babarrun jaterako txartelak erosteko azken eguna da gaur

I. Garcia Berrobi

Larunbatean babarrun jatea egingo dute Begi Gorri gaztetxean. Txartelak zazpi eurotan dau-de salgai helduentzako, eta hiru eurotan umeentzako. Ondoren mus txapelketa egingo da eta gauean Donostiako Ekilibristak taldeak kontzertua emango du. Txartelak Iriarten eta herriko dendan eros daitezke eta gaur da azken eguna horretarako.

Bestalde, Berrobiko Udaletik gogorarazi dute saharar herriarekin bat egiteko kampania abian dela. Produktuak eta eskola materiala herriko dendan eta udal-txean biltzen ari dira eta horretarako azken eguna ostirala da.

Irudia ◊ Tolosa



KARROZA HANDIENAK, USABALEN

Hilabete bat baino gutxiago falta da Inauteriei hasiera emateko. Zaldunita otsailaren 19an da eta karroza eta plataforma prestaketak hasi dituzte. Ferialekuan elkartzen dira inauterizaleak beraien lanak burutzeko, eta dagoeneko ez dago lekurik bertan karroza gehiagorako. Aurten, berritasuna, karroza handienak Usabal industrigunean prestatzen ari direla da. Jokin Monfort udaleko jai teknikariak azaldu duenez, jai batzordeko bileretan atera zen ideia: «Karrozei eta konpartsei ematen zaien dietetatik dirua murriztea, eta pabilioi bat alokatzea erabaki zen bileretan». Aurreikuspenen arabera, 40 bat euro murriztuko dizkiote talde bakoitzari. I. GARCIA

Maria Rodriguez ◊ Musikaterapeuta

«Askotan hitzen bidez ezin dena esan, musikaren bidez esan daiteke»

Imanol Garcia Tolosa

Maria Rodriguez (Eibar, 1981) ari da Hirukide ikastetxeak antolatutako musikaterapia saioak ematen. Atzo 18 eta 36 hilabete arteko haurrei zuzendutako aiaz zen, bihar 0 eta 18 hilabete artekoentzat, eta hilaren 31n, haurdun daudenentzat. Nahi duten guztiei irekitako saioak dira. Izena emateko 943 67 39 48 zenbakira deitu edo hirukide@hirukide.org helbidera idatzi daiteke. Saioak Hirukideren Gainberri eraikinean egingen ari dira.

Zer da musikaterapia?

Musika, soinua eta mugimendua

baliabide gisa erabiltzen duen diziplina da musikaterapia. Hemen oso ezaguna ez bada ere, beste herrialde batzuetan, AEBn, Argentinan eta Ingalaterran, adibidez, urteak daramatzate prebentzio moduan erabiltzen, heziketan eta maila klinikoan. Musikaterapiaz pentsatzean, askori burura etortzen zaie pertsona bat erlaxatuta musika entzuten, baina berez musikaterapiak prozesu aktiboa eta pasiboak ditu. Esaterako, musika egitea, instrumentu errazak erabiliz eta aurretik musika ezagutzarik izan gabe, musikaterapiaren erabiltzen dugun baliabide bat da eria baloratzeke, helbu-

ruak finkatzeko eta tratamendu bat ezartzeko. Labur esanda, hitza erabili beharrean, musika, soinua, gorputza eta musika instrumentuak erabiltzen dituen psikoterapia da.

Zertan lagundu dezake musikak haur txikienei?

Musika guztion bizitzan dago txikitatik. Jaio baino lehen ere, lehenbizi garatzen den zentzumenaren entzumena da. Haurrek musikarekiko daukaten harremana oso txikitatik nabarmendu daiteke. Musikak mugimendura gonbidatzen gaitu, entzumena eta atentzioa lantzen laguntzen digu; erritmoak kontzeptu logiko eta matematikoetarako lehen pausoetan laguntzen digu, gisa harremanetarako baliabide dibertigarria da, lengoian eta hizkeran oso baliabide erakargarria da... Esan dezakegu musikak Howard Gardnerrek deskribatutako zortzi adimenetan eragina daukala, haurren garapen osoan zein garapen fisiko, sozial, emozional eta kognitiboan lagunduz.

Hainbat saio antolatu dituzue. 18 eta 36 hilabete artekoak eta 0 eta 18 urte bitartekoak. Zer egiten duzue saio horietan?

Hirukide eskolan antolatutako saioetan, familian egongo gara



I. GARCIA

haurrekin jolasean. Musika eta mugimenduari jolastuko dugu, instrumentuak joaz, dantza eginez, abestuz... Gurasoei musika nola erabili dezakegun, printzipio teorikoak, musikari buruzko ikerketak... azalduko dizkiegu. 18 eta 36 hilabete arteko haurrekin oso ekintza mugituak izaten dira, adin tarte horretan horrela ikasten baitute: korrikan, saltoka, ukituz... esperientziaren bitartez. Ostegunean, berriz, txikienekin arituko gara, dantza lasaigoekin, abesten eta instrumentuak joaz, afektuz beteriko ekintzetan.

Datorren astean, haurdun daudentzat izango da saioa.

Badaude haurdunaldia fisikoki lantzeko hainbat fisioterapeutek eta medikuk eskainitako ekintzak. Musikaterapiaren bidez jaioko den haurrekin nola kontaktatu lantzen dugu. Musikaren bidez, haurdunaldiko laugarren hilabetetik entzuten duen haurrekin afektuz beteriko lengoia sortzea da helburua. Hala nola, haurdun dagoen emakume-

aren beldurrak, zalantzak, eta ongizatea lantzen dira musikaren bitartez. Askotan hitzen bidez ezin dena esan, musikaren bidez esan daiteke.

Zer du musikak hain berezia izateko?

Gure ingurua bibrazio eta soinuez bete da. Gure gorputzak, gainera, besteek jasotzen dituzten soinuak egiten ditu. Gure kulturak soinuak eta musikak ditu, elkarren artean lotzen gaituztenak. Esan dezakegu denok daukagula soinu identitate bat, hein batean besteekin elkarbanatzen duguna eta, beste aldetik, bakarra eta bakoitzarena dena. Musikak eta soinuek sentsazio eta oroitzapenetara eramaten gaituzte. Horrek eragiten du bakoitzak bere bizitzako soinu banda bat izatea eta musika gure bizitzaren eta gure komunikatzeko moduaren parte izatea. Eta, aldi berean, musika baliabide interesgarri bihurtzen du tratamendu bat egiteko, osasun prebentziorako tailer baterako edo heziketa programa baterako.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Asuncion klinikak 4.046.403 euroko zorra duela salatu du TOPAK

Beste hainbat «irregulartasun» ere azaldu dituzte herritarrentzako antolatutako batzarrean

Itzea Urkizu Tolosa

Asuncion klinika kudeatzen duen INVIZA enpresak, 2010ean 4.046.403 euroko zorra zuela salatu zuen Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde koordinakundeak, pasa den larunbatean Tolosako udaletxeko batzar aretoan antolatuta zuten bilera irekian.

Aretoa bete zuen bileran, Javi Arana medikua, Cristina Pelaez denbora bankuko kidea eta Mari Mujia LABeko arduraduna izan ziren hizlariak, eta hasieratik argi utzi nahi izan zuten, TOPA ez dagoela Asuncion klinikaren aurka. «TOPAK onartzen du, klinika eskualdeko zerbitzu publikoaren lana osatzen aritu dela, eta lan horretarako egokia dela, eta ez gaudela Asuncionen zabalte lanen aurka. Baina koordinakundeak ez ditu onartzen proiektu honetako irregulartasunak, eta ezta diru publikoarekin enpresa pribatuak finantzatzea ere», esan zuten.

Obra baimen «irregularra»

Iazko ekainaren 1ean, TOPAK Asuncion klinikan aurreikusita zuden obrak geratzeko eskaera egin zuen publikoki, eta Mari Mujiak bilera azaldu zuenez, «artearen alkate zen Jokin Bildarratzek ez zuen erantzunik eman».

TOPAK salatu duena, ordea, obra baimena da. Izan ere, 2011ko ekainaren 9an, alkatetza aldatu baino bi egun lehenago, Jokin Bil-

Asuncion klinikako obra baimena balio gabea da gaur egun

darratzek Asuncion klinikako obra baimena sinatu zuen alkate dekretu bidez.

Honen aurrean, hiru herritarrek helegitea aurkeztu zuten Tolosaldeko Udalean, Bildarratzek obra egiteko emandako baimena «irregularra» zela azalduz. Koordinakundeak azaldu duteenez, irregulartasun handiena honakoa da: «Klinika zabalteko lizentzia horretan, Tolosaldeko Udalak ez zion Asuncion klinikari eraikinen, instalazioen eta obren gaineko zerga ordainduarazi, eta ondorioz, 231.000 euro ordaindu gabe utzi zituen klinikak».

Invizak, Asuncion klinika kudeatzen duen enpresak, pasa den abenduaren 14an honen inguru-



Batzar aretoa bete egin zen joan den larunbateko batzarrean. A.MAZ

ko argudioak aurkeztu zituen, helegitea aurkeztu zuten hiru herritarrei erantzunez, eta oraindik ofiziala ez den arren, Tolosaldeko Udalak balio gabetzat jo du Bildarratzek emandako obra baimena.

Klinikaren zorra

TOPAKo kideek, Asuncion klinikako kudeatzailea den Inigo Dendaluzek duela hilabete batzuk egindako adierazpenak ekarri zituzten gogora; adierazpen haie-tan, klinikako kudeatzaileak, Asuncion etekinak ateratzeko enpresa bat ez zela zioen. Baiezta-pen honen aurrean, koordinakundeak «zalantzak» dituztela diote, eta beren argudioak eman zituzten pasa den larunbateko batzarrean.

Asuncion klinikak porrot ekonomikoa izan zuen 1996. urtean, eta orduan sartu zen auzi honetan, Jesus Gomez Montoya. Gaur egun Inviza enpresaren jabea da, eta Invizak Asuncion klinikako kudeaketa daramanez, klinikako zuzendari orokorra da bera.

Mari Mujiak azaldu zuenez, «hainbat enpresa sare ditu, tartean El Pilar klinika, edo orain dela gutxi Kantabriar ireki duten zaharren egoitza bat. Gertutik jarraitu beharreko pertsona dela uste dugu».

1996ko porrotaren aurrean, zorra nola banatu eta ordainduko zuten adostu zuten: «Garai hartan, horrelako enpresek porrota izaten bazuten, ogasunari ordainduko behar izaten zioten zorra», azaldu zuen Mujiak. TOPA koordinakundeak, hamasei urte beranduago zorrak hor jarraitzen duela salatu du: «Osakidetza-ko jendeari Invizaren zor hori gaur egun nola dagoen galdetuta, ez dakitela erantzuten dute, baina hori gezurra da. Izan ere, dokumentu ekonomikoetan argi eta

garbi azaltzen da».

Zorra ordaintzeko, egutegi moduko bat egin zutela azaldu zuen Mujiak, eta bide honetan, urtez urte «zor historikoa» ordaintzen joan behar zuketzen Invizak eta Asuncionekin: 1996-1997 urteetako etekin %20 zorra ordaintzeko bideratu behar zuten; 1998-1999an, berriz, irabazien %40; 2000. urtean, Invizaren etekin erdia bideratu behar zuten Gomez Montoyak zorra ordaintzera, eta aurrerantzean, irabazien %75 bideratu behar izan zuten horretarako. «Gaur egun, beraz, Asuncion klinikako etekin %75 zorra ordaintzera bideratu beharko luke-te oraindik ere, baina badute modurik, hori ordaintzea saihesteko», esan zuten TOPAKo kideek.

Horrela beraz, 2009an, Asuncion kudeatzen duen Invizak 1.193.752 euroko zorra zuen ogasunarekin, 2.747.580 eurokoa gizar-te segurantzarekin, eta 115.642 eurokoa Fogasarekin, TOPAK batzarrean azaldu zuenez; guztira, beraz, 4.056.794 euroko zorra zuen Invizak, duela hiru urte.

2010ean, zor hori 10.000 eurotan gutxiagotu zen: «Suposatzen da, 10.000 euro horiek enpresaren etekin %75a direla. Baina enpresa pribatu batek hain etekin gutxi izatea ez da normala».

Gaur egun, beraz, 4.046.403 euroko zorra du Invizak, eta proportzio horretan ordaintzen jarraitzen badu, hemendik 200 urte baino gehiagora, zorrak hor jarraituko duela dio TOPA koordinakundeak.

Enpresaren «muntai»

Aipaturiko zor honi aurre egiteko, Jesus Gomez Montoyak enpresa sare bat sortu duela salatu zuten TOPAKo kideek, pasa den larunbateko batzarrean: «Alde batetik, Yatpinde izeneko enpre-

sa matrizea dago, eta hortik hainbat adar ateratzen dira: Inviza, Geusa, Asistencia Médica Tolosa eta baita 2011n sortutako Historias y Gestión Hospitalaria S.L. enpresa ere. Hau aztertzen hasiz gero, Yatpinde-k langile bakarra duela ikus daiteke. Geusa-k, berriz, 9 langile ditu, eta Invizako gizar-te sagurantzako zenbakiarekin batera, 285 langile dituela azaltzen da. Asistencia Tolosa enpresak, 13 langile ditu, eta 2011n sortu berria den enpresa oraindik ezin izan dugu arakatu».

TOPAren ustez, «muntai» honen funtzio bat du, eta helburu jakin batekin egina da: «Enpresa promozioen sistema bat osatu dute, eta euren artean halako trikimailu bat sortu dute. Hau sakonago aztertzea beste batzuen lana izango da, baina garbi dauka, muntai honen bidez desagertzen direla Invizak urtero atera beharko litzuzkeen etekinak; beste norabaitera joaten direla».

Hau guztia «Tolosaldeko herritarrei iruzur egitea» dela uste du TOPAK, eta horrelako enpresa bat «herritarren osasun zerbitzurako bermea ez dela» uste dute koordinakundeak.

Baldintza «desegokiak»

Asuncionek gaur egun eskaini dezakeen zerbitzua ere hizpide izan zen batzarrean. Izan ere, TOPAKo Javi Aranak azaldu zuenez,

beren ustez Asuncionek gaur egun ezin du eskualdeko ospitale publiko batek eman dezakeen zerbitzu bera eskaini: «Zer hartzen dugu oinarri hau baiezatzeko? Lehenik eta behin, ez dago leku fisikorik, Asuncioneko kontsultak eta espezialitateen ambulatorko 60.000 kontsultak artatzeko; gainera, Donostia ospitaleko kontsultak ere Asuncionek artatuko ditu aurrerantzean, izan ere, Tolosaldeko biztanleek ezingo dute bigarren iritzi baten bila edo ospitaleratzera Donostia-ira joan». Halaber, kontsultak Asuncionen, Belaten, Andoainan edo El Pilar klinikan banatuta gotea ere gaitzetsi du koordinakundeak.

Medikuen titulazioekin ere egin zituzten hainbat aipamen. Izan ere, Asuncioneko espezialista batzuk, Medikun Eskolan homologaturiko espezialista gisa ez direla agertzen diote TOPAKo kideek.

Era berean, Asuncioneko ordutegi ospitale publiko bateko ordutegiarekin «zerikusirik ez» duela salatu zuten batzarrean, espezialistetako askok eguerdira arte bakarrik lan egiten dutela esanez.

Honen guztiaren ondorioz, eta «Asuncion Tolosaldeko erreferentziako ospitalea izatea nahi badute, Euskal Herriko gainerako eskualdeetako desberdintasun hain nabarmenak izatea onartezina da. Guk zerga berak ordaintzen ditugu, eta gainerako biztanleekiko alde desagera da, Asuncion klinika publiko egitea konponbide bakarra» dela uste dute TOPAKo kideek.

Herritarrek egin dezaketena

Beste hainbat gauzaren artean, koordinakundeak kideek herritarrei dei egiten zieten, osasun arloan jasotzen duten zerbitzuekin ados ez baldin badaude, erreklakatu.

Herritarrek euren kexak eta helegiteak egiteko deia izateko du TOPAK

mazio edo kexuak aurkez ditzaten; ambulatorkoan eta osasun zentruetan eskuragarri izango dira.

TOPAK ezinbestekotzat du, herritarren presioa, eta adibidetzat Uzturre gerontologiko berria eta Iurreamendi egoitzako gaueko txandaren berrezartzea jarri zituen Javi Aranak.

Iragarki laburrak


ALOKAGAI

■ **Etxebizitza.** Alegiako San Juan kalean; 3 logela, terraza eta bi trasterorekin. Interesatuek, deitu 626 867636 telefono zenbakira.

LANA

■ **Zaintzailea.** Emakume eskualduna behar dugu, adineko pertsona bat zaintzeko Bidan-nian. Interesatuek, deitu 639 214555 telefono zenbakira.

Udalak Berazubiko proiektua «emakumeen begietatik» aztertu nahi du



Berazubikoa da 2012rako aurreikusitako proiekturik aurreratuena. I. URKIZU

50 bat egun barru jasoko dituzte udal arduradunek, egitasmoko xehetasunak

Itzea Urkizu

Berazubiko estadioaren eraberritze proiektuan, emakumeek euren ikuspegitik xehetasunak eman zituzten, pasa den asteazkenean bilerarako deia luzatu zuten Tolosako Udaleko berdintasun eta kirol teknikariek.

Arantxa Estanga kirol teknikariak azaldu duenez, lehenago ere udaleko arduradunek pauso bartzuk eman zituzten, bizilagunei nahiz kirol elkarte guztiei proiektu berria aurkezteko: «Honen inguruan dauden eragile guztiei esplikatu diegu proiektua».

Udalak, ordea, beste begirada bat eman nahi izan dio jada idazketa fasean dagoen eraberritze lanen proiektuari. Horrela beraz, berdintasun sailaren bultzadaz, eta «parekidetasuna udal jardunaren zeharlerroetako bat izateko helburuz», aurkezpena emakumei bideratu nahi izan diete, bereziki.

Berazubiko estadioa berritze egitasmoa esleitu berria da, eta udalak, emakumeek euren errealitatek gehitu zitzaizketen farduna edo xehetasunak ezagutu nahi izan ditu, «hainbat irizpide kontrastatzeko». Estangateknikariaren arabera, «badakigu emakumeen ahotsarekin proiektua ez dela goitik behera aldatuko, baina egitasmoan ez dauden xehetasun txikiak gehitzea posible da».

Bilerak arrakastarik ez

Tolosako Udalak pasa den urtarrilaren 18rako deialdia egin zuen bilerarako. Jarritako hitzordura, ordea, emakume bakarra joan

zen. Estangak azaldu zuenez, «bartzuek, bilerara etortzea ezinezkoa suertatu zitzaizela azaldu ziguten; egia da, kirolari asko ikasleak direla, eta eskolaz kanpoko jarduerak izaten dituztela iluntze aldera. Beste askok tarte horretan entrenamendu garaia izaten dute. Lehen deialdi hartan, aurkezpena talde guztiei eta eragile guztiei egin genienean, behar bada emakumeek beren burua ordezkatuta sentitu zuten, eta ez zuten proiektuan gehitu beharreko ezer ikusi».

Oraingoz, Tolosako Udalak ez du emakumei begirako beste deialdirik egiteko asmorik azaldu. Proiektua idazketa fasean dagoenez, egitasmoko xehetasun guztiek azaldu behar dute testuan: «50 bat egun barru jasoko dugun dokumentua izango da, eta behar bada, orduan berriro saikera bat egingo dugu. Definizio fase honetan, erantsi beharrekoak eranstea eta arkitektoari jakinarazteko unea da orain». Horrela beraz, baliteke udalak beste pauso bat ematea, Berazubi estadioaren berrikuntza lanak genero ikuspegitik gauzatzeko.

Proiekturik aurreratuena

Udalak aurreikusitako lanen artean, aurreratuena da Berazubi estadioa berritzearena, eta Iñaki Etxeberria arkitektoak irabazi du lehiaketa.

Eraberritze lanek, fase bat baino gehiago izango dituzte, eta 2012an lehen zatirekin hasiko dira, milioi euro inguruko aurrekontuarekin: harmailak berritzea eman nahi izan diote lehentasuna, eta aldagelak ere egingo dituzte bertan.

Halaber, igerilekuaren ondoan dagoen eraikinean gimnasioa eta padelean aritzeko kantxa eraikiko dituzte.

Kirolzer enpresak kudeatuko ditu aipaturiko bi zerbitzu hauek. tolosa@hitza.info

Garenak
x2
izateko

Lagun iezaguzu
harpidedun berriak egiten

ekar ezazu
hitzaren
harpidedun
berri bat

Gainera, gertukoak zioritzeko
agur bat oparituko dizugu
HITZA n argitaratzeko.

HITZA, euskarazko
herri informazioaren leihoa

eta **opari**
bana
jasoko duzue

HITZAren
jertsea
harpidedunak



Mahala **saskia** harpidedun berriak

Harpidedun berria urtarrilaren 31 baino lehen ekartzen dutenentzat.

Bizikidetzaren plana egiteko eragileen iritzia jasoko dituzte

Udala Gatazketarako Bakeola bitartekaritza zentroarekin elkarlanean ari da ikerketan

I. Urkizu

Bakeola Fundazioarekin elkarlanean, Tolosako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Udal Plana garatzeko lanean ari da Tolosako Udalak.

Udalak azaldutakoaren arabere-

ra, helbururik behinena, herriko eragile politikoaren, hezkuntza arduradunen eta gizarte eragileen iritzia jasotzea da, bizikidetzaren, gizarte eskubideen nahiz bakeko heziketaren inguruan. Iritziak bilduta, gaur egungo premia nagusiak ezagutu nahi dituzte, proposamenak aurkezteko.

Azterketaren lehen atalean, aipaturiko eragileei elkarrizketak egin dizkiete, eta orain lan taldeak eratzten ari dira, ikerketaren bigarren atalarekin hasi ahal izateko.

Erabilera anitzeko eraikina bukatu dute, eta barrutik hornitzea baino ez da falta

Behel solairuan adinekoek erabiliko duten gela bat egokitu dute, eta lehen pisuan spinning emango dute

Eneritz Maiz Orendain

Orendaingo Udalak, udaletxearen atzeko aldean erabilera anitzeko duen eraikina egin du. Ia bukatu dute, eta hainbat zerbitzu eskainiko dituzte bertan. Azpiko solairuan kokatu duten haur eskola esaterako, astelehenean jarri zuten martxan.

Behel solairuan, momentuz, hirugarren adinekoentzako egokitu dute gela bat, eta helburua beraien kabuz ibiltzeko gai diren adinekoak bertan elkartzeko aukera izatea da. Helduek egiten duten mantentzeko gimnasia ere bertan ematen dute.

Lehen solairuan, momentuz, gela batean spinning klaseak ematen dituzte. Eta beste guztiaren erabilera zehaztu gabe dute. Herri galdeketa egin du udalak, eta herritarren oniritzia eman ostean, bertan proposatutako bi proiektu dituzte buruan. Gorka Egia alkatearen hitzetan, alde batetik, 5-7 urte arteko eskola jarri behar dela iradokitzen du, eta beste, helduen topagunea izan dadin, egokitzen saiatuko dira.



Eraikinaren atzeko aldetik haur eskolarako sarrera jarri dute. E. MAIZ

Azken solairuak erabilera anitzeko izango du. Liburutegia kokatu dute bertan, eta espazio handia duenez hainbat kultur ekitaldi ere bertan antolatuko dituztela jakinarazi du udalak.

Alkateak Erein programako diru laguntza zertan den ez jakitea salatu du: «Urte amaitezako bukatu behar genituen lanak, eta haur eskola egokitzeko eskatutako 2011ri dagokion diru laguntza izango dugun edo ez, oraindik ez dakigu».

Orendaingo Udalak, 761.000 euro inguruko inbertsioa egin du

eraikina egiten, eta Gipuzkoako Foru Aldunditik 600.000 euroko diru laguntza jaso zuen.

Orain barrutik hornitzea falta zaie, eta horretarako diru laguntzak eskatuko dituzte. Lehentasuna, goiko solairuari emango diote.

Erabilera anitza duen eraikinaren ondoan etxebizitzak egiten ari dira, eta urte honen amaierarako bukatuta egotea aurreikusten dute. Udalarekin elkar lanean egin dituzte urbanizazio lanak ere ia amaituta daude. alegaldea@hitza.info

Etxean konposta egiteko deialdia luzatu du Bidegoiango Udalak

Etxean konposta egin nahi duenak hilaren 31 baino lehen izena eman beharko du; doan jasoko du behar den guztia

E. Maiz Bidegoian

Bidegoiango Udalak bat egin du Urola Erdialdeko Udal Elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako sailarekin batera, etxean konposta egiteko abian jarriko duen seigarren kanpainarekin.

Norberak bere etxean sortutako materia organikoa konpostatu

eta berrerabiltzea da helburua. Bertan parte hartzeko lorategi txikia edo baratzea izatea nahikoa da. Ondoren lortutako konposta bertan berrerabiliko da.

Kanpaina honetan parte hartu nahi dutenei konpostagailua, horren erabilpenerako ikastaroa eta liburuxka dohain emango zaizkie. Baita aholkularitza zerbitzua ere, sortzen diren zalantzak telefonoz edo posta elektronikoz argitzeko. Izena eman nahi dutenek Urola Erdialdeko Udal Elkarteak 943 85 73 19 telefono zenbakira deitu edo ueue@udal.gipuzkoa.net helbide elektronikora idatzi dezakete, hilaren 31 baino lehen. alegaldea@hitza.info

Hainbat gairen inguruko batzorde bilera, gaur

Ekonomia, ingurumena, etxebizitza, baserria eta hirigintza biltzen dituen batzordea bilduko da Berastegin

E. Maiz Berastegi

Berastegiko Udalak, ekonomia, ingurumena, etxebizitza, baserria eta hirigintza biltzen dituen

batzordearen lehen bilera egingo du, gaur, 21:00etan. Udal bulegoan izango da bilera, eta udal ordezkariak herritar guztiak bertaratzeko deia luzatzen diete.

Etxebizitzei buruzko nahiak, beharrak, galderak, ... egiteko aukera izango dela esan dute, ekonomia bultzatzeko bideak aztertuko dituzte, eta hirigintzako proposamenak edota baserritarren beharrak ikusi eta aztertzei aukera izango da bileran.



harpidedun izateak badu saria

zozketa

1 Zabala Sagardotegia

Bi lagunentzako bazkaria edo afaria

Garagartza baserria
Aduna
Tel.: 943-69 07 74
www.rzabala.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51

2 Isastegi Sagardotegia

Bi lagunentzako bazkaria edo afaria

Aldaba Txiki, 15
Tolosa
Tel.: 943-65 29 64
www.isastegi.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52

3 Sarasola Sagardotegia

Bi lagunentzako bazkaria

Asteasu
Tel.: 943-69 02 83



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53

4 EUREKA! zientzia museoa

Bi lagunentzako bina sarrera

Mikeletegi, 43-45
Donostia
Tel.: 943-01 24 78




Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 54

5 'Zazpikoloroa' Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Bi lagunentzako bina sarrera

Belabieta kiroldegia · Ibarra
Otsailak 3 Ostirala
18:00etan



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 55

Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeineskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adieraziz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan, Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

harpidedunen **TXOKOA hitza**

Villabona-Aiztondo

Irudia ◊ Amasa-Villabona



IRTEERA ARRAKASTATSUA

Villabonako Aizkardi mendi taldeak eta Club Vasco de Camping elkarteak irteera arrakastatsua antolatu zuten iragan igandean. Donostiatik abiatu ziren mendizaleak, eta Aldura eta Bianditz gainditu ondoren, Agiñara iritsi ziren. Irteerara joan zirenek euria izan zuten bidaia guztian lagun, paisaia ederrez gozatzea debekatuz. Hala eta guztiz ere, Zariako goiera honetan ikus daitekeenez, jendea ez zen etxean gelditu, eta izerdia franko botatzeko aukera ez zuten alferrik galdU. HITZA

Irudia ◊ Anoeta



SU-BERRI, TXAPELDUN

Anoetako Su-Berri elkarteko pilotariak Euskal Herriko Txapelketa irabazi dute, ezker hormako modalitatean. Alegiako Ainhoa Garmendia, Lizartzako Nagore Arozena eta Anoetako Maider Mendizabalek osatu dute Su-Berriko taldea, eta finalean Hernani-koen aurka aritu ziren. Orain, Kutxa Saria jokatzeko hasiko dira Mendizabal eta Arozena, eta Garmendiak, lehia honen barruan aurten lehen aldiz antolatu den promozio txapelketan hartuko du parte. HITZA

Beterriko bertsolari txapelketa ez da egingo aurtengoan

Kudeatzaile lanetan aritzen zen udal langileak Andoaingo Udaleko lanetara itzuli behar izan du

Asier Imaz Amasa-Villabona

Beterriko bertsolari txapelketa ostiral honetan zen hastekoa, azken urteetako ibilbideari jarraituz. Manuel Larramendi Kultur Bazkunak data hori jarri zuen bosgarren txapelketari ekiteko, baina txapelketa bertan behera gelditzen dela argitu dute kultur elkartetik, abenduaz geroztik izan dituzten arazoak tarteko: «Bizi dugun egoera ekonomikoan guztiz ezinezkoa zaigu inor jar-tzea txapelketaren lan egitaraua zuzentzen».

Bertsolari txapelketa Larramendi Bazkunaren eta Beterriko udalen artean, 1999. urteaz geroztik gauzaturiko lan egitarau zabalaren barruan kokaturik zegoen, Beterri-Aiztondo Gerora Bidean deiturikoan, hain zuzen ere. Bada, hitzarmen horren kudeaketa egin duen langilea, azken urteetan, Andoaingo Udalekoa zen, udal horrekin Larramendi Baz-

kunak orain zazpi urte lortu zuen hitzarmenaren arabera. Bazkunatik jakinarazi dutenez, «Andoaingo Udalak egoera horri amaiera eman berri dio, bere langileak udaleko lanetara itzul dadin aginduz». Hala ere, kultur elkarteak eskerrak eman nahi izan dizkio Andoaingo Udalari, «azken zazpi urteetan aipatu lan egitaraua garatu ahal izateko aukera eskainiz azaldu duen eskuzabaltasunagatik».

Berrikuntzekin prest zeuden

Azken lau urteotan Larramendi Bazkunak antolatu duen Beterriko bertsolari txapelketaren diseinua bideratuta zeukan dagoeneko urtero berrikuntzaren bat tartekatzen duen Amaia Agirre bertsolariak, eta txapelketaren bosgarren txanda hau aldaketa ugarirekin zetorrela aipatu dute kultur bazkunatik: «Esaterako, orain artean hiru bertsolariz osatutako lau taldek parte hartzen bazuten, aurten bi bertsolariz osatutako bederatzik bikote ziren parte hartzeak. Bestalde, orain artean txapelketa bi kanporaketa eta finalak osatzen bazuten, aurten hiru kanporaketa eta finala egitekoak ziren». Gauzak horrela, 2013ra begiratu beharko da.

Jesusen Bihotzaren ibilaldi neurtua, igandean

Villabona eta Zizurkilgo ikastolaren kultur astearren barruan sukaldaritzaz ikastaroa egingo dute, gaur

A. Imaz Villabona-Zizurkil

Jesusen Bihotza ikastolak antolatzen duen Ibilaldi neurtuan Aiztondo bailarako herritar ugari hartzen dute parte. Mendi itzulia

ikastolaren kultur astearren barruan kokatzen da, eta aurtengoa igande honetan izango da.

Mendizaleen neurriera egindako bi ibilbide antolatu dituzte ikastolatik: ibilbide luzea eta motza. Lehenak, 09:00etan irtengo dira Zizurkilgo ikastolatik, eta itzuli motza egitekoak direnak 10:30ean. Kultur aste barruko argazki lehiaketaren irabazleak nortzuk diren, ibilbide neurtuaren ondoren jakingo direla azaldu dute ikastolatik.

↓ Egitaraua

GAUR, URTARRILAK 25

- **09:00-12:30.** Kirol jarduerak.
- **17:30-19:30.** Sukaldaritzaz ikastaroa Zizurkilgo Urkamendi elkartearen.

BIHAR, URTARRILAK 26

- **09:00-13:30.** Sexu heziketa DBH 3ko ikasleentzat, Kizkitza Arzena sexologoaren eskutik.
- **15:00etan eta 16:00etan.** Erleak hitzaldia.
- **15:00-16:30.** Seguru nabigatzea hitzaldia.
- **15:30.** Potxin eta Patxin paila-zaok frontoian.
- **17:00-18:30.** Seguru nabigatzea hitzaldia, Txermingo liburutegian gurasoentzat.

ETZI, URTARRILAK 27

- **09:00etan aurrera.** Klasi-koak klasean izeneko hitzaldia entzun ahal izango da.

URTARRILAK 28, LARUNBATA

- **10:00-13:00.** Eskalada egingo dute Tolosako Usabal kiroldegian.

URTARRILAK 29, IGANDEA

- **09:00etan.** Ibilaldi neurtua. Ibilbide luzearen irteera ikastolan egongo da.
- **10:30ean.** Ibilaldi neurtua. Ibilbide motzaren irteera ere ikastolan egongo da.

→ Laburrak

'Katillukadak' txotxongilo emanaldia, igandean

AMASA-VILLABONA ◊ Udalak antolatzen duen kultur egitarauaren barruan, urtarreleko azken igande honetan, *Katillukadak* txotxongilo emanaldia egongo da Gurea antzokian. Haurrentzako ikuskizuna 12:30ean hasiko da, eta sarrera 4,5 eurokoa izango da.

'Kabaret' ikuskizuna antolatu dute Asvinenean

ADUNA ◊ Asvinenean *Kabaret* ikuskizuna ikusteko aukera egongo da hilaren 27an, etzi, 22:00etatik aurrera. Bertan, bost talde ariko dira: La Cigarra y el Grillo, Moriarti Vinilo, Buluka, Badut eta Afrik&Blai. Afrikar dantzak, aire akrobaziak, clown-ak eta abarrek giroa ederki berotuko dutenez, eskualdeko herritarrei bertara joateko deia egin diete antolatzaileek.

Beotibarren Aurrera Saizekoak ariko dira

PILOTA ◊ Aurrera Saiazeko pilotariak Euskal Herriko Txapelketa partidak jokatu dituzte ondorengo egunetan. Eskualdean, Tolosako Beotibarren aurrera dira lehiak, bihar 21:15ean eta larunbatean 11:00etatik aurrera.

Atsaureen kalejirak eman dio berezitasuna Ihoteetako azken egunari; Leitzakoen ostean, Aresok hartuko du lekukoa, etzi hasiko baitira bertan Inauteriak.

Leitza atsaureen esku

Iñigo Terradillos Leitza

Antzina Ihoteetan egin ohi zuten moduan, herriar ugari irten zen kalera atzokoan atsauretuta. Zein baino zein bereziagoak, ikusmin handia sortu zuten mozorro ikusgarri hauek. Ezin, bada, festa modu egokiagotan bukatu, Leitzako Ihoteen berezitasunak jarri zion aurtengoari puntua.

Ederki landutako mozorroa soinean jarri eta erakusteko unea iritsi zen azkenean. Zaku zaharrrak, arropa edo soineko koloretsuak, ardi edo bestelako larruak, lastozko txanoak, adarrak, kareetak eta norberaren irudimenetik sorturiko bestelako ezaugarriak ikusi zitezkeen kalean. Guztia baita onargarria atsauretzeko. Hori bai, zarata egiteko zintzariak edo antzerakoak eta jendea astintzeko maskuriak ematea beharrezkoa da, eta inork ez ezagutzeko arpegia estalita ematea ere nahitaezkoa.

Beste urteetan ez bezala, aurtentzen, herriko hainbat puntutatik irten ziren atsaureak, guztiek plaza bat egiteko. Ondoren, kalejira egin zuten, trikiti doinuek eta jan edanak lagunduta. Asko eta asko harri eta zur geratu ziren pertsonaia misteriosu hauen aurrean, eta izutu zenik ere izan zen tarte-

an. Ikuskizun paregabe honek oso giro polita sortu zuen Leitzako kaleetan. Eskean ere aritu ziren goizean, eta, egunean zehar, gaztetxoeren gozamenerako jolasak eta antzerkia izan ziren. Dantzadi taldearen emanaldiaren ostean, Torrean eginiko barrikotean elkartu ziren herriarrak.

Jai «jendetsuak»

Pasa den urteetan adina jende izan dela nabarmendu dute Leitzako kultur taldeko kideek. «Jende ugari ibili da lau egunetan zehar, eta ia zkoa behintzat errepikatatu dugu». Jendetsuena larunbata izan zen, «batez ere, kanpotik jende ugari gerturatu zelako Leitzara parranda egitera».

Aurtengo parte hartzea ere pasa den urtekoaren pareko izan dela esan daiteke. «Ilgandean, esaterako, 7-8 gurdi irten ziren, eta herriar ugari ikusi ahal zitezkeen mozorrotuta; horrez gain, aipatzekoa da jende askok apaindu dituela etxeetako balkoiak, herriari festa ukitua emanez».

Aresok lekukoa

Leitzarren bizilagunen Inauterietarako ez da gehiegi itxaron behar. Etzi arratsaldean botako dute Areson jaien hasiera iragaritzen duen suziria, eta hiru egunetan zehar festa giroak ez du etenik izango.



Dantza saioa egin zuten atsaureek plazan herriar ugariaren begiradapean. I.TERRADILLOS



Plazarako bidea saltoka, zarata artean eta maskuriarekin herriarrak izutuaz egin zuten. I.TERRADILLOS



Ilgandean jende ugari izan zen gurdien kalejira ikusten. Gaztetxoek ederki igaro zuten antzerkian. ALKE/I.TERRADILLOS

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



GOIZA	OSKARRI
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	10°
HOTZENA	5°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Aparteko osoko bilkura deitu dute gaurko. Udaletxe-ko pleno aretoan izango da 19:30etik aurrera, eta bertan Kutxaren Kontseilari Orokorra aukeratu ahal izateko udal gehiagorekin elkartzeko proposamena eztabaidatuko dute.
- **Villabona-Zizurkil.** Jesusen Bihotza ikastolako antolatutako kultur astearen barruan gaur, 09:00etatik 12:30era, kirolak izango dira LH 3, 4 eta 5 mailako ikasleentzat; eta 17:30etik 19:30era, sukaldaritza ikastaroa Zizurkilgo Urkamendi elkartearen Jokin Zabalaeren eskutik. Guraso, ikasle eta irakasleei zuzendutako ikastaroa da.
- **Tolosa.** Hirukide ikastetxeak musikoterapia saioak antolatu ditu. Lehena atzo izan zen, eta hurrengoa bihar izango da. Biharko 0 eta 18 hilabete bitartek haurrentzat izango da, 16:30ean haur eskolan.
- **Tolosa.** Et Incarnatus Orkestrak emanaldi berezia eskainiko du Laskorain ikastolako Lask abesbatzarekin, Ken 7 taldeko Eñaut Elorrietarekin, Xiberoako Amaren Alabak taldekoekin eta Tolosaldeko hainbat musikarirekin batera. Emanaldia osatiralean izango da, 20:30ean Leidor aretoan, eta sarrerak www.kutxa.net webgunean eskuratu daitezke jada.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** May Colmenero margolariaren ikasleen talde erakusketa ikusi daiteke Aranburu jauregian otsailaren 25a arte.
- **Ibarra.** Jaietako argazki erakusketa Benito Izagirre kultur etxean martxoaren 2a arte. 300 argazki inguru ikusi ahal dira.

Sahararekiko elkartasuna indartu nahi du Alegiako Udalak eta eskolak

Urtarrilaren 31 bitarte bilduko dituzte produktuak; janaria eta eskolako materiala, besteren artean

Eneritz Maiz Alegia

Alegiako Udaleko Gizarte Zerbitzuek eta herriko ikastetxeak Saharar herriarekiko elkartasuna indartu nahi dute.

Tolosaldeko Sahararekin elkar-tearekin batera urtero egiten dute janari bilketa, baina azken urteetan jendearen ekarpena beharantz joan dela ikusita, ekimena indartu nahi dutela azaldu dute.

Herritarrei hortaz, bakoitzak bere ahalmenen arabera ekarpena egiteko deia egin diete. Eta ikastetxean ere, gaia jorratzeko, elkartasun baloreak lantzen ari dira ikasleekin.

Herenegun hasi zuten kanpaina, eta hilaren 31, asteartea, bitartean luzatuko dute. Materiala, eskolan eta Gizarte Zerbitzuetan ja-

soko dute. Eskolara, eskolako ordutegian eraman beharko dira produktuak, eta gizarte zerbitzuetan utzi nahi izanez gero, 09:00etatik 14:00etara joan behar da.

Hainbat material bildu nahi dute, jatekoa, alde batetik, eta eskolako materiala, bestetik. Jatekoen artean lekaleak, sardinak eta hegaluza oliotan, pasta, arroza, azukrea eta olioak bidaltzeko eskatu dute. Era berean, konpresak eta helduentzako pixoihalak ere jasoko dituzte.

Kanpainaren arduradunek esandakoaren arabera, eskolak

eraikitzen ari dira Saharan, eta dagoeneko 44 ikasle daude. Behin obrak bukatutakoan, 120 ikasle hartuko dituzte eskoletan. Horretarako, hain justu, bildu nahi dute eskolako materiala: arka-tzak, ezeztekoak, txorroskiloak, koadernoak,...

Bukatzeko, bigarren eskuko kamioiak erosi behar izaten dituzte materiala eraman ahal izateko eta horretara bideratzeko dirua biltzen ari dira.

Honako kontuetan sartu daiteke dirua: Kutxako 2101 00 6722 0011180866 eta La Caixako 2100 17 5868 0200077750.



Udaleko eta eskolako ordezkariak, zenbait produktuekin. E.MAIZ

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. Telefonoa: 943 67 36 49.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-en eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

Programazioa

28 KANALA

- **08:30.** Ur eta lur. ■ **09:00.** Foorfur. ■ **09:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **10:00.** Gerra Zibila. ■ **10:30-11:30.** Esatea libre. ■ **11:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **12:00.** Ikusmira. ■ **12:30.** On ein. ■ **13:00.** Amaigabeko istorioa. ■ **13:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **14:00.** Gerra Zibila. ■ **14:30.** Esatea libre. ■ **15:00.** Esatea libre. ■ **15:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **16:00.** Ikusmira. ■ **16:30.** On ein. ■ **17:00.** Amaigabeko istorioa. ■ **17:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **18:00.** Walker. ■ **18:30-19:30.** Bat eta Bat. ■ **19:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **20:00.** Kantari Oñati.

TXOLARRE IRRATIA
(107,6 edo www.txolarre.org)

- **11:00-12:00.** Tolosaldeko Ahotza albistegia. Besteak beste, Tolosaldea Sahararekin elkar-tearen janari bilketaz ariko dira. ■ **12:00-13:00.** Tolosaldeko Ahotza magazina. Besteak beste, *Zortziko Aldrebasa* bertso-laritzari eskainitako asteroko tartean *Bertsomovida!* lehiaketaz hitz egingo du Iñaki Apalategik; larunbatean Donostian izango den Bertso Egunaz ariko dira Bertsozale Elkarteko kideak; eta Txolarrek egindako bertso jaialdiaren errepaso ere egingo dute. ■ **13:00.** Lehiaketa eta disko eskainiak. ■ **13:30.** Info 7ko albistegia. ■ **14:00.** Tolosaldeko Ahotza albistegia. ■ **16:00.** *Gonekin Ero Bero* saioa. ■ **17:00.** *Kabitik plazara* saioa. ■ **18:00-20:00.** Tolosaldeko Ahotza magazina eta albistegia. ■ **20:00.** Info 7ko albistegia. ■ **21:00.** *Adi* saioa.

Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean liburu erosteko aukera duzue:

- **Liburudendetan:** Prezioa 21 € eta harpidedun txartelarekin 18 €
Anoetan: Kuku-lore liburudendan.
Ibarran: Lurdes liburudendan.
Tolosan: Aranburu liburudendan, Elkar liburudendan eta Babel liburudendan.
Villabonan: Kazetaria liburudendan.

• **HITZAKo bulegoan:** Prezioa 18 € eta harpidedunek 15 €

Eskaintza berezia

HITZAren egoitzara etortzean, '1936ko Gerrako Oroitzapenak' liburu ere eskuratu ahal izango duzue: prezioa 10 € eta harpidedunek 8 €. Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean + 1936ko Gerrako Oroitzapenak, bi liburuak, 25 €, harpidedunek 20 €.

